

## Bihar, hilak 4, aurkeztuko dute Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak aditu titulua

2016/10/03

Bihar, hilak 4, Eskoriatzako Udalean egingo den ekitaldian aurkeztuko dute Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak aditu titulua. Ekitaldia hasiko da 18:30etan eta, ikastaroko 18 parte hartzaileaz gain, aurkezpenean parte hartuko dute Joxe Ramon Zubizarreta Eskoriatzako alkateak, Andoni Barreña, Garabide Elkarteko presidentek eta Karmele Perez MONDRAGON UNIBERTSITATEko ordezkariak. Garabide elkartearekin batera, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak antolatzen du aditu titulu hau.

Aditu Ikastaroaren hirugarren edizioa hasiko da 2016ko urriaren 1ean eta bukatuko da abenduaren 11n. Oraingo edizioan hartuko dute parte bederatzi herri eta hizkuntza indigenetako 18 lagunek; artean, kitxua, nasa, maia, nahuatl, katxikel, aimara, guarani, maputxe eta bariba herrietako ordezkariak.

Prentsaurrekoan, ikastaroak izango dituen gaiak aurkezteaz gain, azalduko dituzte egonaldian zehar parte hartzaileek egingo dituzten dinamikak eta bisitaldiak.

Ikastaroaren helburua da eragitea hizkuntza eta identitate minorizatuen biziberritze, berreskurapen eta indartze prozesuetan. Eta, kooperazio linguistiko-identitarioaren bidean, partekatzea beharra dutenekin, euskalgintzak erabilitako estrategiak eta bildutako esperientziak. Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak aditu titulua eskaintzen da bi urtetik behin.



Bi urtetik behin egiten da aditu titulua.